

Ohiko Batzar Orokorrean onartutako akordioak BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAE

Ohiko Batzar Orokorra, 2024ko apirilaren 16ean 16:30etan bigarren deialdian bildu zen. Batzarrak misto izaera izan zuen, hau da, aurrez-aurre bertaratzeko aukera izan zen eta baita modu telematikoa konektatzekoa ere.

Onartutako akordioak ondorengoak izan ziren:

- Batzarrak aho batez onartu zituen 2023ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena, eta baita 2023 ekitaldiko Gobernu Batzordearen eta bertako kideen kudeaketa ere.
- Batzarrak aho batez onartu zuen Baskepensiones Banakako BGAEn ikuskaritza Deloitte SL enpresaren ordez PriceWaterhouseCoopers enpresaren esku uztearen berrespena, ondorengo hiru ekitaldietarako (2024, 2025 eta 2026).
- Batzarrak aho batez onartu zuen 2024 ekitaldirako administrazio gastuen aurrekontua.
- Batzarrak aho batez onartu zuen BGAeko gobernu-organuen osaketa berriaren berrespena.